



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet”

2021eko urtarrilaren 24a  
Urteko 3. igandea (B)

### Marko 1, 14-20

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu eta gero, Jesus Galileara etorri zen eta Jainkoaren berriona hots egiten zuen. Honela zioen: “Betea da garaia, eta gainean duzue Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitetze eta sinetsi berriona”.

Jesusek, Galileako aintzira-bazterrean zehar zihoala, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak uretara botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: “Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet”.

Haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Aurreraxeago, Santiago eta Joan anaiak, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sare-konponketan ari ziren beren untzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien. Haiek, beren aita Zebedeo eta mutilak untzian utzirik, Jesusen ondoren abiatu ziren.

Garbitu zaitze eta sinistu egizue Barri Ona.

Bide okerretik alden dutzean baino Berarekin joatean datza benetako damutasuna.

## JESUSEN ONDOREN JOAN

*Jose Antonio Pagola*

Joan Bataiatzailea atxilotu zutenean, Galileara joan zen Jesus eta «*Jainkoaren Berri Ona hots egiten*» hasi zen. Markoren arabera, ez da ari preseski doktrina irakasten, ikasleek ikasi eta zuzen zabal dezaten. Gertatzen ari den gertaera bat ari da hots egiten Jesus. Gertaera hori bizitzen ari da bera, eta guztiakin partekatu nahi du bere esperientzia.

Honela laburtu du Markok mezu hori: «*Bete da epea*»: ez da jada zertan jarri atzera begira. «*Hurbil da Jainkoaren erregetza*»: hain juxtu, mundua gizatarrago egin nahi du. «*Bihotz-berri zaitetze*»: ezin jarraitu duzue ezer gertatzen ari ez balitz bezala; aldatu zeuen pentsaera, zeuen jarduera. «*Sinetsi Berri On hau*». Entzun dezakezuen berririk onena duzue Jainkoaren asmo hau.

Hotsandiko laburpen hau egin duelarik, lankide bila hastea izan da Jesusen lehenengo egintza, bere asmoa gauzatu ahal izateko. Jesus «*Galileako aintziraren inguruan dabil*». Ekin dio bere bideari. Profeta ibiltaria da, jarraitzaile bila dabil, haiekin ibilaldi zirraragarri bat egiteko: Jainkoaren erregetzarentzat bideak urratuz bizi. Jesus ez da bere katedran eseria dagoen lege-maisua, erlijio-eskola bat moldatzeko ikasleak etorri zain dagoena. Kristau izatea ez da doktrina bat ikastea, baizik Jesusi jarraitzea, haren bizi-asmoari atxikiz.

Jesus da beti ekimenari ekiten diona. Hurbildu, lau arrantzale haiei begira jarri eta beren bizitzari beste norabide bat ematera egin die dei. Jesusen esku-hartzerik gabe, ez da jaio sekula egiazko kristaurik. Fededunok sinesmen handiagoz bizi behar dugu Kristoren presentzia bizia eta gutako bakoitzari egiten dion begiratua. Hura izan ezean, nork eman gure bizitzari beste norabide bat?

Baina gauzarik erabakigarriena nork bere barruan haren deia entzutea da: «*Zatozte nire ondoren*». Ez da gauetik goizerako eginkizuna. Dei hori entzuteak Jesusekiko konfiantza iratzartzea esan nahi du, harekiko atxikimendu pertsonala biziagotzea, haren egitasmoan uste ona izatea, haren egitarauarekin bat egitea, haren jarrera geugan berregitea...; horrela, haren egitasmorako jende gehiago irabazteko.

Honako hau izan liteke gaur egun ikurritz bat kristau-elkarte batentzat: *Jesusen ondoren joan*. Guztien buru hura ezarri. Igandero gogoratu hura, gure aurretik doan lider gisa. Beste dinamika bat sortu. Jesukristori hurbilagotik jarraitzea jarri erdigunetzat. Gure kristau-elkarteak egiaz eraldatuko lirateke. Beste bat izango litzateke Eliza.